

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Proiektu honen bezero mota finko bat ez dago, bai adin gutxikoak bai helduagoak erabili ditzaketelako. Aplikazio hau zure bizitza erraztea du xede, beraz, bai zure hurren janzkera, bai zure arropa aukeratzeko baliogarria da. Beste abantaila bat modan aditua ez zarela izan behar da: zure estiloa hobetzeko edota aldatzeko CCMagic erabili daiteke; baina aldi berean, ideiarik ez baduzu ere lagungarria suerta dakizuke. Ziur gaude aurrezten duzun denbora beste ekintza batean erabili dezakezu, adibidez, ohetik beranduago altxa zaitezke, orain minutu batean arropa aukeratuta izango duzu-eta. Gure ustean, aplikazioa gehien erabiliko dutenak gazteak izango dira, janzkeraz gehien arduratzen direnak baitira. Denboraren poderioz, saiatuko gara ahalik eta erabiltzaile gehiago erakartzen: gazteak, gurasoak, helduak...

Laburbilduz, esan dezakegu gure enpresa moda gustatzen zaienei zuzenduta dagoela gehien bat, baina inspirazio behar dutenei ere gustatuko zaie. Bezero hauek, esan bezala, gazteak izango dira oro har, eta bere itxuraz arduratzen direnak. Gerta daiteke, horietako batzuk alferrak izatea, edota aitaren batean etxetik atera behar dutenak.

Aplikazioaren erabilera

